

8 CANVAS FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuaren jarduera garrantzitsuena ekoizpena da, transmititu nahi ditugun balioak ere bai. Gure produktuak kalitatezkoak izatea eta haien funtzioa betetzea oso garrantzitsua da, bestela arrakasta gutxiago edukiko genuke. Arropa eta jostailuak erosteko beste aukera bat eskeintzen dugu, ingurumenarekin arduratsuagoa dena eta ehungintza-industriak ingurumenean duen eragina murrizteko aukera ematen duena. *Water Footprint* ikerlanaren arabera, kotoia da munduko ur guztiaren % 2,6-ko kontsumoa eragiten duena. Esaterako, kilo bat kotoi ekoizteko, 10.000 litro ur erabili behar dira. Baina, guk gehiegizko arroparen ekoizpena ekidingo dugu hura alokatuz eta bigarren bizia emanaz. Beraz, kutsaduraz gain, geroz eta baliotsuagoa den uraren alferrik gastatzea ekidingo genuke.

Hiru funtsezko jarduera garrantzitsu ditugu eta gure lehentasunaren arabera ondorengo modura ordenatuko genituzke. Lehentasun handiena ekoizpenak izango du, ondoren arazoak konpontzeak izango du lehentasuna eta amaitzeko plataforma edo sareko jarduerak.